



DEBAKO UDALA

Oharra: errefuxa botatzeko txipdun edukiontzi grisén ezarpena

Mankomunitateak aste honetan zehar ezarriko ditu errefuxa botatzeko edukiontzi grisak herriko hainbat gunetan; Debako herrigunean dauden zabor-bilketarako guné nagusietan, hain zuzen ere. Zabor-bilketa sistema berria martxan jarri zutenean azaldu bezala, edukiontzi grisa ipiniko duten guneean orain arte zaborra botatzen zen edukiontzi berdea kendu egingo dute. Gainontzeko edukiontzi grisak otsailean zehar ezarriko dira.

Herritarrei gogorarazi nahi diegu edukiontzi grisak ere txipdunak direla, eta hauek ireki ahal izateko materia organikoaren edukiontzi marroia irekitzeko erabiltzen dugun txartel bera erabili beharko dela.

Mankomunitateak proposaturiko kronogramaren arabera, martxoan jarriko dituzte **ostalari eta merkatariék** sortzen duten zaborraren bilketa hobetuko duten berrikuntzak martxan.

Nota: colocación de contenedores grises provistos de chip para la recogida del rechazo

La Mancomunidad está colocando esta semana los contenedores grises para la recogida del rechazo en varios puntos del municipio. Concretamente en los grandes puntos de recogida habituales del casco de Deba. Y a su vez está procediendo a la retirada de los verdes, habituales hasta ahora donde iba una mezcla de residuos. El resto de contenedores grises se irán colocando a lo largo del mes de febrero.

Desde el Ayuntamiento, queremos recordar a la ciudadanía que estos contenedores grises también están provistos de chip, por lo que para abrirlos será necesario el uso de la misma tarjeta ya repartida con la que abrimos los contenedores marrones para la materia orgánica.

Según el cronograma facilitado por Mancomunidad, será en marzo cuando se implanten las novedades que mejorarán la recogida de residuos generados por **hosteleros y comerciantes**.